

**Denboraren makina**  
Paterak kontrako  
norantzan

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

Thesi  
Alkurruntz Amaiurko  
gerlariaren begietatik

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## Robert Laxalten urrezko maisulana

*Sweet Promised Land* izeneko liburua 1957an kaleratu zuen Robert Laxalt idazleak. Bere familiaren bizitza jendaurrean plazaratzearekin batera, Estatu Batuetako mendebaldeko larreetan ibilitako euskal artzainen bizimodua eta pentsakera orriz-orri biluztu zuen Laxaltek, barne muinetan errotutako literatura soil bezain sotila erabiliz. Bere maisulanak lortutako arrakasta ezin neurtu daiteke, eta zinez, estatubatuarrek beste begiz ikusi zuten hortik aurrera Ameriketako euskalduna. Gure *best seller*-ak urrezko ezteiak egin dituen honetan, haren mamia eta ibilbidea josi nahi ditugu hemen.

URKO APAOLAZA

NATIONAL GEOGRAPHIC

Irudi honetan, Laxalt aita-semeak ageri dira. Argazkia *Nathional Geographic* aldizkarirako egin zen 1966an, Robert Laxaltek aldizkari horretan euskal artzainei buruz kaleratu zuen artikulua osatzeko.





Goiko irudian  
Dominique Laxalt  
(eskuinean). Nevadako  
mendietan pasa zuen ia  
bizitza osoa eta Euskal Herrira  
itzultzean zera esan zuen:  
"Hau ez da orain nire herria, urte gehiegi  
egin ditut Ameriketean".

# Nevadako euskaldun baten literatura ezkutua

**NEVADAKO MENDIETAN** larreak bihurtzen dira desertu, nola lautada estali elurrez. Ameriketara joandako euskaldun asko artzain aritu zen lurralde horien bakardadean. Duela 50 urte, Robert Laxalt (Nevada, 1923-2001) izeneko idazle batek bere aita zuberotarraren esperientzia idatzi zuen abileziaz, sentimenduz hobe. Liburua izugarri saldu zen eta mendebaldeko estatubatuar askok haren bidez jakin zuten mendian zebiltzan euskal artzainak ez zirela atzerritar aprobetxategiak. Arrakastaren gaineratik, Laxalten obrak euskaldunen berezko izaera agertu zuen, eta horrexek egiten du *Sweet Promised Land* liburua hain garrantzitsu.

## Ameriketako Leturia ezkutua

Argitaratu eta berehala kritikoez goratu egin zuten Nevadako idazlearen lana eta irakurleek ere harrera ezin hobea egin zioten. *San Francisco Chronicle* egunkariak, adibidez, mendebaldeko ehun liburu onenen artean kokatu zuen. Atlantikoa abiatu pasatu zuen liburuaren famak eta Ingalaterrako *National Book Society* ospetsuak aipamen berezia egin zuen, Laxalten liburua irakurtzeko gomendatuz. Hortik aurrera, Robert Laxalt AEBtako Mendebaldeko idazle kontsokratu bilakatu zen. Hamabost liburu gehiago idatzi zituen, Pulitzer sarirako hautagai izan zen bi bider eta Ameriketako literaturgileen onarpen osoa lortu zuen.

Baina Kantauriko txoko honetan ez zuen oihartzunik izan Dominique protagonist duen istorioak. “Euskal Herrian jendea lanean ari zen orduan —dio Nevadako idazlea gertutik ezagutu zuen Miel A. Elustondok—, Laxaltek bere lan ezagunena argitaratu zuen urte berean, beste Laxalt bat jaio zen gurean: Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua* argitaratu zuen. Bide paraleloak bete zituzten”. Gerora, Laxaltek Donostiako Urrezko Danborra jaso zuen, 1986an hain justu, bere obraren merezimendu gisara. Hala ere, euskal irakurle askok ez dute kasik ezagutzen *Sweet Promised Land* liburua, ezta bere mamia ere: gure Ameriketako osaba-izebek basamortu haietan isuri zuten izerdi, malko eta irribarra, trebezia ikaragarri literatura bilakatu zuen eleberriaz ari gara, hain zuzen.

#### Aitaren zimurak erakusten

Liburua inprentako makinatik atera baino askoz lehenago sortu zen, bidaia baten lehen txartela erosi zutenean.

1953an Laxalt aita-emeak Euskal Herrira etorri ziren, eta idazle gaztearen beginiñetan bere sustraian irudia islatu zenean jakin zuen horri buruz idatziko zuela. Hasierako testuak ez zituen liburu bat osatzeko egin, *The Saturday Evening Post* aldizkarian argitaratzeko baizik. Robert Laxaltek duda asko izan zituen idazten hasi aurretik: “Ezin nuen eleberri baten moduan idatzi, gure bidaiaren gauza garrantzitsu bat galduko litzateke: errealismoa” esan zion



LAXALT FAMILY ARCHIVE. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA



LAXALT FAMILY ARCHIVE. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA



LAXALT FAMILY ARCHIVE. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA

**Goitik behera: Dominique Laxalt artzain, gazte garaian. Smith Valleyko (Nevada) laxaltarren arrantxo, 1920. urte inguruan. Dominique (zutik) eta bere lagun batzuk garai haietako auto baten ondoan, irribarrez.**

di irentsiko du liburua. Nevadako idazleak, estilo garbiz, argumentuarekin jolasten du testuari gero eta bizitasun gehiago emanez: bere aita sorterrira itzuliko da berriro. Nola erantzungo du Dominiquek Liginagako baserriko atea berriz gurutzatzerakoan? Galdera horren erantzuna irrikaz bilatuko du irakurleak liburuan aurrera egin hala. Azken batean, Robert Laxaltek iraganean bizi den artzain baten eta hegazkinaren abiadan mugitzen den mundu baten

Laxaltek David Rio ikerlariari, Carson City-n eskainitako elkarrizketan. Biografia nobelatuak Dominique Laxalten barne munduaren berri ematen digu. Mendian bizi den artzain baten berri. Izaera gogor eta bakartikoa, naturaren konplizea, kanpamendu bateko suaren itzalekin marrazten du bere aita Robert Laxaltek.


Dominique 1906an atera zen Liginaga-Astuetik (Zuberoa) eta Nevadako bidea hartu zuen, txikitatik ikasitako lanari ekiteko, artzaintza. Milaka abelburuko arrantxoan lanean ari zela ezagutu zuen Thérèse Alpetche; harekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten. Artilearen krisiarekin arrantxo lan nomadari utzi zioten eta Thérèse euskal ostatu batean hasi zen. Dominiquek ez zuen sekula mendia abandonatu ordea, morroi aritu zen ardi zaintzen, horrela ezagutu zuen beti Robert Laxaltek, “larru eta telazko denda artean”.

*Sweet Promised Land* irakurtzen duenak esaldiz esaldiz

Argitalpen honen edizioan lankide:

 **k u t x a**





MARYLOU URRUTIA. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA

Euskal artzainek mendebaldeko AEBetara egin zuten lehen bidaia antolatua, 1944 urtean. Bihotza erdibituta bukatu zuten askok.

arteko talka erakusten digu, umore mingotsez erakutsi gainera.

### Bizitza bat, ispilu bat

Harper argitaletxeak lehen alea kaleratu zuenetik, hainbat berrargitalpen izan ditu liburuak: alemaneraz (*Baskische Heimkehr*, 1959) frantsesez (*Mont père était berger*, 1972), euskaraz (*Dominique: artzain xiberutar bat Nevadan*, 1988) eta azkenik, gazteleraz (*Dulce tierra prometida*, 2000). Euskarazko edizioa Elkar argitaletxearen eskutik argitaratu zen eta Xabier Mendiguren Bereziartuk egin zituen itzulpen lanak. “Arbelaitz anaien ilusio, izpiritu eta sentimenduagatik. *Sweet Promised Land*-en historiaren parte dira, beraiek eragin baitzioten liburuaren euskarazko itzulpenari”, dio Miel A. Elustondok. Baina, zergatik liburuak ez du gurean zirrarak sortu, eta aldiz, duela 50 urte Amerikako etorkinen artean *best seller* bilakatu zen?

Galdera horri erantzuteko, emigrante euskaldunek XX. mende hasieran bizitako egoeraren erroetara jotzea dugu onena. Milaka lagunek AEBtako mendebaldera egin zuten dirua egiteko asmoz –Ipar Euskal Herriatik hein handi batean–. Milaka izanagatik ere, euskaldunena komunitate txikia zen etorkinen lurraldean. Ezin da konparatu Irlandatik edo Italiatik amildutako jende uholdeekin. Handitasun horretan ikusezinak ziren Nevada eta Kalifornia arteko mendietan aritzen ziren artzain euskaldunak. Artzaintza ez zen preseski lanik preziatuena; gainera, *cowboy* edo unaiekin arazo ugari izan zituzten euskal artzainek eta horrek haiengan zegoen ezagutza eskasa gaiztotu zuen.

Dena den, 1950. hamarkadan AEBtako minoria etnikoen inguruko interesa pizten hasia zen jadanik –ordurarte integrazioa zen atzeritarren helduleku bakarra–. Horrela, Robert Laxalten obrak hankaz gora jarri

## Laxalt urtea

Nevadako Unibertsitateko prentsa zerbitzuak, Laxalten obraren jatorrizko bertsioa berriz ere argitaratu du martxoan, liburuaren 50. urteurrena dela-eta. Liburuak AEBtako hainbat egunkaritako kritika jaso du: “Liburu honek begirune unibertsala merezi du, amerikar klasiko bat delako” (*New York Times*). Bestalde, Laxalt urtea den honetan, Renoko Reynolds kazetaritza eskolak eta beste zenbait erakundek ekitaldi ugari antolatu dituzte. Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan, adibidez, hitzaldi ziklo bat izango da ekainean eta bertan Monique Laxalt idazleak bere aitaren eta *Sweet Promised Land*-en inguruan hitz egingo du.

zuen euskaldunen inguruko irudi gaiztoa, eta hori bakarrik ez, beste jatorriko etorkin ugari Dominique Laxalten bizitzak islatzen duen malenkonía eta garratzasunarekin identifikatu zuten beren burua. Liburuak aitzindaria izan zen alde horretatik, katalizatzaile.

### Euskaldunek ere egin zuten AEB

Euskal Herriko behatokitik euskal emigrante haiek komunitate itxi bezala irudikatzen ditugu askotan; baina haiek ere sortu zuten barnealdeko “mendebalde basatia” eta *God save America!* oihukatu zuten. Robert Laxalt zen inmigrante horien bigarren generazioa; galdu zuen euskara txikitari, aritu zen boxeoan, eta Bigarren Mundu Gerran parte hartu nahi izan zuen kosta ahala kosta, “bigarren mailako herritar” sentituko ez bazen. Laxalt estatubatuar petoa genuen, euskal jatorriko beste asko bezala. Horregatik, ez dira harrizkeoak eleberriarren amaieran Dominiquek esandako hitzak, berriz ere Nevadara itzultzeko unea iristen zaionean: “Ezin naiteke itzuli. Hau ez da orain nire herria. Urte gehiegi egin ditut Ameriketara”. Elustondoren aburuz estatubatuar irakurleari hori gustatu zaio: “Gutarikoa da” esaten die Laxaltek azken finean.

Gure idazlea aparteko kastakoa zen baina. Aitarekin 1953ko bidaia hori eginez gero, zubi baten giltzarria jarri zuen. Ondoren beste zenbait bidaia egin zituen Euskal Herrira; hemen ezagutu zuen Jon Mirande eta ezagutu zuen euskalduna izatea zer den. Harrezkero euskal jaialdiak –1959an Renon ospatu zen Mendebaldeko Lehen Euskal Jaialdia–, euskal ikasketen programak eta itsasoz beste aldeko euskaldunen irudia sustatu zituen AEBtan. Laxaltek, liburu batekin, Nevadako desertuan ura badela erakutsi zuen duela 50 urte, eta orain ur horretatik euskaraz edateko aukera aparta du irakurleak gainera. ■